

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargarkiak

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETA BIDE AZPIEGITUREN SAILA

“Leciñana del Camino-n (Araba) biltegi berria eta EUTE eraikitzeako proiektua”-k eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda zabaltzea eta aipatutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko eta/edo behin betiko okupazioko eta, hala badagokio, balio justua ezartzeko aktak egiteko

Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko foru diputatuak, 2023ko azaroaren 16an, 198/2023 Foru Agindua onartu du. Hona hemen horren testua:

“Leziñanan biltegi berria eta edateko uren araztegia eraikitzeako proiektua” burutzeko behar den desjabetzea handitzea. Okupatzeko beharra deklaratzeko. Kreditu atxikipena.

Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 2ko 499/2022 Erabakiaren bidez, «Leziñanan biltegi berria eta EUA eraikitzeako proiektuak» eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda onetsi zen, haiek okupatu eta eskuratu beharra deklaratu zen, desjabetzea presako prozeduraren bidez izapidetu behar zela adierazi zen, eta Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren titularrari ahalmena eman zitzaion proiektua gauzatzeko behar ziren azalera handitzeko eta aldatzeko.

Erreferentziako proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendaren desjabetze espedientea Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan araututako presazko prozeduraz izapidetu da.

2023ko urriaren 10ean, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak jakinarazi zuen Leziñanako goi-hornidurako sistema hobetzeko obrak egin bitartean, indusketak egin eta lursailak jatorrizko egoerara lehengoratzeko ezinezkoa dela ikusirik, eraiki beharreko biltegi berriaren inguruan lursailak duen errealitateak behartu egin duela lursaila ezponda batzuekin lehengoratu behar izatea, eta egonkortasun orokorra lortu nahian aurreikusitakoa baino behin betiko okupazio handiagoa egin behar izan dela.

Gaineratu duenez, aurrekoaren ondorioz, handitu egin behar da “Leziñanan biltegi berria eta edateko uren araztegia eraikitzeako proiektuari” buruzko desjabetze espedienteko 1. eta 2. finketako behin betiko okupazioa.

Horretarako, desjabetze espedienteko 1/100 eta 2/100 finkak sortzen dira, foru agindu honen eranskinean agertzen diren afektazioekin.

Desjabetze Atalak kalkulaturakoaren arabera, handitze honen eraginpeko ondasun eta eskubideen desjabetzea 851,03 eurokoa da.

Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 15. artikulua eta hura garatzen duen arautegiak okupazioa handitzea eta hedatzea jasotzen dute, eta okupatu beharreko ondasunen artean sartu daitezke aurreikus daitezkeen kasuan kasuko obra handitzeetarako edo helburuetarako ezinbestekoak direnak, desjabetzea dakarren helburu, obra edo zerbitzuari loturik geratzen direla iritziz. Era berean, adierazi behar da presaz okupatzeko beharra gauzatu diren proiektuen handitzei ere aplikatzen zaiela, eta, beraz, bidezkoa dela eragindako ondasun eta eskubideen desjabetzea handitzeko izapideak presako prozeduraren bidez egitea.

Aztertu dira Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak aurrekontu kreditua dagoela adierazteko idatzitako txostenak eta Desjabetze Atalak egindakoa, eta Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko diputatua naizen aldetik dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. "Leziñanan biltegi berria eta edateko uren araztegia eraikitzeako proiektua" burutzeko behar den desjabetzea handitzea.

Bigarrena. Adieraztea handitzeak eragindako ondasunak okupatu eta eskuratu beharra dagoela, desjabetzeak egiteko.

Hirugarrena. 851,03 euroko kreditu atxikipena egitea, Arabako Foru Aldundiaren 2023ko aurrekontuko 50106. G/453501/60000500 "Desjabetze hidraulikoak" partidaren kontura, eragindako ondasun eta eskubideen balio justua dela-eta ordaindu beharreko zenbatekoei aurre egiteko.

Lugarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak eranskinean jasotzen diren finkei dagoen balio justuaren kopurua ordain dezala, Desjabetze Atalaren buruak balio justua ordaintzeko proposamen txostena aurkeztu eta gero. Ordainketa hori lehen aipatutako lerro eta zorpekin erreferentziaren kontura egingo da, legeak ezarritako epean.

Administrazio bideari amaiera ematen dion foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, nahi izanez gero, lehenago, berraztertze errekurtsioa aurkez dakioko organo honi, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera."

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Lantarongo Udaletxeko lokaletan ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatik kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskainiz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 21a

Bide Azpiegituren zuzendaria
MARÍA ÁNGELES GUTIÉRREZ ONDARZA

Mugikortasun Jasangarriaren eta
Bide Azpiegituren Saila
Departamento de Movilidad Sostenible
e Infraestructuras Viarias

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

LECIÑANA DEL CAMINO-N (ARABA) BILTEGI BERRIA ETA EUTE ERAIKITZEKO PROIEKTUA. /
PROYECTO CONSTRUCTIVO DE NUEVO DEPOSITO Y ETAP EN LECIÑANA DEL CAMINO (ALAVA).

Esp./Expte. 2022/2-A

FINKAREN ZK.	TITULARAREN IZENA	KATASTROKO DATUAK		UDALA	APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO AZALERA M ²		ZORTASUNA
		POLIGONOA	LURSAILA			BEHIN-BETIKOA	BEHIN-BEHINEKOA	
Nº FINCA	NOMBRE DEL PROPIETARIO	DATOS CATASTRALES		AYUNTAMIENTO	APROVECHAMIENTO	SUPERFICIE AFECTADA M ²		SERVIDUMBRE *Acueducto de abastecimiento 3_m ²
		POLIGONO	PARCELA			DEFINITIVA	TEMPORAL	
1/100	ADMINISTRAZIO BATZARRA / JUNTA ADMINISTRATIVA: LECIÑANA DEL CAMINO / LEZIÑANA	6	89 A	LANTARÓN	LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECANO	144	0	0
2/100	ADMINISTRAZIO BATZARRA / JUNTA ADMINISTRATIVA: SALCEDO	6	90 A-B 90 C-D	LANTARÓN	ETZE / ERIAL LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECANO	19	0	0
						134	0	0